



Efoma - Batikano'tik.

Malta'ko Eleiz - Batzaña. Egunokaz asi da Malta'ko ugartearen erkiko Eleiz - Batzaña. Aita Santuak Batzar onetan bere ordelarietza egiteko Lepizier kardenala autu dau. Aita Santuak Zuzendu dautson idazkian diñotso oso atsegiñez ikusi dabela Gozo ta Malta'ko Gotzainak izan dabean asmo au, batez bere, bertan adiralduko diran gayak eta artudo diran erabagiak, gogoak gaizkatzeko bide egoki izango diralako. Izan be iru gai gafantzitsu aztertuko dira: Yauparien deuntasuna, gurasoak euren semeak ondo azteko dauken eginbear astuna, eta Katoliko - Ekinztari inda'ra emeteko bideak. Lepicier kardenalak bide gustian aferarik edefena izan dau eta bertara eldu danean efi gustiak agintari, gudaiburuak aurfenend dirala and'kro artu dabe. Eta eleizkizun zoragafi bategaz Eleiz Batzañari asiera emon dautse, Lepizier kardenalak itzaldi sakon bat egiñaz.

—Egunokaz Aita Santua ikertu dabenean artean «Pio XI» abade-ikastetxeko ikasleak izan dira, Aita Santuak itzaldian esan eutsen, gero ta alaitasun gartsuagoz euren aziera ta ikaskizunetan lan egiteko, alan euren ikasleakaz batean, poztasunez bete dayen gustion Aita dana be.

Baita ila onen 16'gn ikertu dau Eugenio Artaraz eta Emaldi. O. P. Kottenna'ko Gotzain izenduna, eta Bac Ninh'eko Vicarius Apostolicus dana. Gotzain agurgafi au Yuñe, Afatia'ko semea da, eta Efoma'tik onuntz osterata egiteko asmotan dago. Ibilaldi on bat egin dayela opa dautsogu, euskeldun Gotzain agurgafiari.

Alfa Santua ta Kistar-Ikastia.

Efoma'n dagon Bazkun onuragin bat «Caimari» deritxon Bazkuna da. Camari andereñoak irasia da oin urte batzuk. Bere egitamua txalofaia; umeak lenengo Yaunartzarako gertau, eta umeai Kistar ikastia irakatsi. Orain arte 15 pafokitan lan egiten dabe eta urtero mila neska-mutiko Yaunartzarako gertau eta 3.500'eri Kistar Ikastia irakasten dautse. Egunokaz Aita Santua ikertu dabe 1.200 ume lenengo yaunartza egin dabena. Bertan izan dira lenengo saria Kistar Ikastian irabazi dabena, 26. Aita Santua'ri, 25 ume ziñesgeak bateatzeko diru pilotxo eskini dautse. Aita Santua'k itzaldi samur baten euren lanak onetsi ta txalotu ditu, «Kistar Ikastia, gogoak zeruratzeko asierako lan eta ofaia» irakasten dabelako. Umeak Yesu-Kristo'ren kutunak dira eta eurakaz egiten dan lan edefa, maitasun gorengoarea ezaugafi da.

Aita Santuak lan bikain eta txalofafi au egiten dabena umeakaz batean berariz onetsi ditu, eta umeak txalo sutuakaz agertu dautse euren biotz samufetatik ain ezez urteten dabean eskar on eta maitasuna.

Onangoxe bazkun bat efi bakoitzean ez litzakigu txarto etofiko, batez be oin kistar ikastia ikasteko ainbeste eragozpen alde guztietatik sortzen diran aldi zoritzafeko oneitan.

Alfa Santua ta katoliko izpafingiak.

Aita Santua'k izpafingi katolikotafak dauken eragipena ezaguturik, gafantzirik andiena emoten dautso eurak ugaritzeari, egia zabaltzeko «altavoz» ak dira, berak iges esan eban lez-ta. Orixe dala-ta atsegin-atsegiñez ikusi dau Marseille'ko egunokaz eraldu dan Latefi-arteko izpafingi katolikotafan Batza, eta Lendakari Dalla Tofe'k ikertu dabenean poz andia agertuez gañera, 1936'n Yofala'n Batikano'n egingo dan katoliko erakusketa al bait laster eta andikiroen gertatzeko esan dautse, katoliko izpafingiak Eleiz buruen menpetasunean, kistar gizabidearen alde egiten dabean lan onuratsu ta edefaren agerpen izan daiten.

Izpafingilari katolikoak Marseille'n.

Latefi gustietako katolikotar izpafingien ordelariak, Marseille'ko Erakusketa dala-ta, bertan bildu dira. Batzar au oso gafantzitsua izan da, bertan sortu da latefi gustietako izpafingi katolikoan Batza-ta. Bere izena «Union international de la Presse Catholique» izango da Lendakari L'Osservatore Romano'n artezkari Conte dalla Torre izentau dabe. Bazkun onen ardurapean izango da, datofen urtean Batikano'n egingo dan, katoliko-izpafingien Erakusketa gustiz gafantzitsua. Aita Santua'ri agur menpetasun beroa zuzendu dautse, eta erantzun pozgafia artu be bai.

Conte dalla Torre'k Efoma'ra eldu danean Aita Santua ikertu dau eta euren asmoak azaldu ondoren, Aita Santuak, egiñdako lanak dirala-ta, bere poza agertu ondoren Erakusketako gertakizunei aldabean bultzakadarik andiena emetoko esan dautse esker ona agertuaz.

Prantze'tar Katoliko-Bazkuna.

Il onen 5'n Prantze'tar Katoliko-Bazkuna'k Castelnau gudaiburu lendakari zala XV'n batzar orokofa Paris'en ospatu dau. Batzarkideak bidezkuend Montmartre'ko eleizara yoan ziran, eta an Verdier kardenalak Meza emon eta itzaldi bat egin eutsen.

Batzafan asieran Aita Santua'ri urutidatz bat (telegrama) bialdu eutsen agur egin eta menpetasuna agertuaz, eta berak beste bat zuzendu eutsen adoretu ta onetsiaz. Lendakariak urteko lanen bafi emon eta auferantzera egitamua azaldu eban. Radio bidez zabalkundea egiteko asmoak agertu ziran, eta Doncoeur abak gizarte ta efiketa edo politikatzako kistar irakatsia zabalkundeatzaz itz egin eban.

Beste batzuk irakaskintza, agiriko oitura txafetzaz, irakurgai on eta efuki-egintzaz itzaldi sakonak egin zitezuan.

Batzar onek, Bazkunaren batasun eta eralben ona agirian ipini eban.

Yugoelabla'ko Eukaristi - Batzaña.

Ila onen 28'rako, Lubiana'n Yugoelabla'ko katolikotafak Eukaristi - Batzar bat andikiro gertatzen diardue. Gotzain deyar erantzunaz, otoi, gogo-iñarkun eta eleizkizunetz biotzak gertatzen asi dira. Slovenia'n batez be gertakizunok bero-beroan yafaitzen dabe. Gustiak Batzaña gogoan euki dayen pafoki bakoitzean, mendi edo toki garai baten, kurutzeak eukaristiaren ezaugafiak ipini dabe. Sei metrotik ogetabarartekoak izango dira. Lenengo eleizkizunak egiten dabe, eta ondoren ibildeunez Kurutzea ipini daben tokira, an onetsi ta abestirik edefenak abestuaz. Asmo begikoa auxe, zabalkundea egiteko aukerakoa be ba'data.

Aita Santua'k Batzar onetako Ordeleri Hlond kardenala, Polonia'ko Gotzainburua izentau dau. Oso pozik yakin dabe ta yugoslabiak aferarik edefena gertatzen diardue.

Agintariak be abegi onez artu dabe Batzar onen izpafa. Beintzat, Bakaldun-gai eta «Regente» Paolo'k, Lubiana'ko Gotzainari esan dautso, berak be tarteko izan gura leukela eta, Il'n Eukaristi - Batzar onen Batzordeari 20.000 lauerleko emon dautsoz. Belgrado'ko gobernuak, Batzaña doaznai euneko befogetamar merkeago. Latefiko bultz-txartelak ipini dituez.

M'tar G.

Jauñgotzaren legeko aginduak
Ibargutxi'tar J. G.
6 lauerleko

IZPARAK BIZKAYA

Mañari.

Irudi barija.

Emakume baten kostuz, emengo elezara Urtsule deunaren irudi bafi bat ekafi dabe. Irudija edefa ta poliña da. Au dala-ta, mañaritafoz pozez gagoz; neskutz ta ziñopa deun oneri eraspem andija dautsagu-ta. Urtsule deunaren jaya, efi ontan ufilaren 21' gn., elizkizun edefakaz beti ospatzen dogu.

Andoni deuna.

Urkiola'ko Andoni deunez, emeko Kurutze - Santu elezaxuan meza abestu bat emon zan; eta bertan deunaren opaz, Jaunartze asko egin zan.

Egun ofetan, Urkiola-ganera Andoni deunari otoi'tz beroak egitera, lagunetan juañ zan! Jesus! Eguraldija lagun ebela, autoetan eta bafa oñez be, jentetza andijak aldatza gora yoyazala ikusi genduzan; eta euren artian, ijitotan be ez gitxi. Oneik, burdi, asto, txakur eta ume, beti lez, bizkor - bizkor juañ ziran. Bai-ba, jente artian «negosijua» egiteko bizkor ibili biar. Ijitoen asmua olakoa izango zan, «deboziño» utsez aldatzok ezebezan igaroko beintzat...

Juan-etorrijak.

—Emen egun batzuk igarota, Galdakano'ra juañ zan Asua'tar Miren neskatiña.

—Lutzana'tik etofi ziran Magunazelaya'tar Masimiñe ta Jimenez'tar Jeronima.

—Bere afebia ikertuten etofita, igandez egon zan emen Ariznabafeta'tar Martin aberkidia.

Agurtu.

Igandez agurtu genduzan emen Lafabe'tar Sabiñe, Bustintza'tar Miren Edurne, Kintana'tar Karnele, Yufebaso'tar Andone ta Madina'tar Bernarte, Galdakano'ko neskatiña begikoak.

«Askatu arte»ri.

Andoni deunez, zeuretzat eta bafa zeure laguntxuarentzat be akefa gerturik euki neban, baña zuek, ez estimetiafen edo, bape etofi ez. Ufengoañ izan biarko. Eta... eta... ixilik ibili zara e...? Poztuten naz, eta zorijonak opa dautzuedaz bijotzez. Gorantzijak Biritxinaga'ri.

Ulertzañe ona.

—I, zereko zera ikusi dok?
—Bai, zereko zerien zera zertzen egon dok. Añu dok?
—Añuko enayuan ba; gauzia bein ain «klaru» esan ezkerok ba...

MAÑARIKO

Bolibar.

Mesa barijak.

Astion emon dabez Mesa barijak Deustuko Pasionisten etxian Anastasio Lafuskain, Juan Gefakagoitia eta Zenañuzabeitia N., Olate, Alegi eta Upategi'ko seme jatofak. Zorionak euroi, baita euron guraso zintzo-zintzoeri be. Onako semiak efi ja gortzen dabe.

Josu Biotzaren jaya.

Eun eta ogeta zortzi gizeozko eta befeun eta iru andraskok Gure Jauna artu eban goxeko Mesa bijetan. Au aldrea edefal Afatsaldian be eleizia bete-bete. Gogotsu entzun eutsen

Aita S'mon Markiñer Karmeldafari. Ziofotza eta Munitibar'tik edozenbat etofi ziran.

Gexo.

Etzezuriko Margari gexo dabil egunokaz. Len-bai len osatuko al da.

Umlak.

Gaur esan daust umetxu batek emabost lo egin eta Zornotzara do-yela bera. Egunero ikasi eta ikas; diarduela, an lenengo zarija irabaste-ko. Goizian jagi eta lenen Josuren Biotzari eta Andra Mariari oixe eskatzen dautsela. Jaritxiko ede dau? Bayetz diño berak. Ikusiko da.

GOIZ-ZALE

Marin eta Goikolea
(len Apellaniz y C.ª)

Santugintza; Altara, Pulpito
Konfesonario ta eleizetarako
beste zul-lanak

Castilla, 31

VICORIA

Ea.

Foru'ko elezan egubazten goxian ezkondu ziran Olabafia'tar Ane emakume zintzo ta lraña ta Jose Mari Ugalde itxasontzi-buru gaste argia. Ortik al joan бага ezkontza ori efitxoan egin dabe. ¡Ederto! Gernika'ra bafiz ez betiko joan; emen be tokirik asko egongo da-ta. ¡Ezteritxazu, ene adizkide Joxe Mari!

Jandonis'tar Garteiz-afekoa Alizia Adela, emakume argi ta lirain eta Borda'tar Felix, Busturia'ko gaste lardenak, Lafa'ko lekaide - elezara iges daukuba barijekuban. An ezkondu ziran. Oneik baña efitxora ei-datoz biziten. ¡Ze demontrel Dana entiefua barik, jayotzak be ez ete dira biar efi onetan? Zorionak guztioi.

Ugalde'tar Jon Gurutz ikastarora am:ñuta pozik aurkitzen da emen. Au be osagile-geia dozu. Amaiak gexotu biarko yok, ainbeste osagileri ogija emeteko!

Atxabal dar Jose Mari be emen da. Valladolid - aldetik egon da berau egunotan.

Garteiz-afekoa Asun ikaslea be ikastarora amaitu ondoren eldu da. Beragaz bere afeba lrañak. Ondo etofiak.

Deusto'tik, Galarta'tar Joseba sendijagaz.

Durango'tik, Benedikto'tar Anes sendijagaz. Pozik dago emen Txakartegi Durango ori itxi dabena. Miren Terese'k ikastarora ederto

amaitu ei - dau. Ondo etofiak eta zorionak.

Andoni donearen eguna andikiro ospatu da beti lez. Abesti, itzaldi ta abar. Ikustekoak dira Andoni donearen altarak efi onetan! Ain txukun! Benetan Andoni - zale asko dago emen.

KURU

Getxo.

Batzaña.

Lengo barikuan Euzko-Etxia'ren aretuan batzartu ziran Emakume - Abertzale - Batzakoak. Batzar ori urteko gora berak jakiteko ta artezkari bafija ixenpetuteko zan.

Uri Buru Batzaña.

Juañ zan igandean Euzko Alderdi Jeltzalekuak batzartu ziran. Batzar au gafantzi andikua zan.

Batzar onetan artezkari bafija autu zan.

Getxo'ko euzkaldunak entsun.

Irakufiko zenduben egun oneitan «Euzkadi»k zer idatzi dabean euzke-rearen alde. Ara emen Bilbao'ko umetxubak euzkeldunduteko asmua. Orain ikastola guztietako umetxuak oporkaro daukie. Oporkaro au ile bitarako da ta ile bi ofetan basefi-basefi-tara bialtzeko ustegaz dabiltaiz. ¡Ez ete dozu bat artuko zeure base-txian eukiteko euzkeraz baño ez egiteko? Eukiten dozun eguneko lauerko bi ordainduko dautzube. Biztu zaitetz, Getxo'ko basefitar ori, ta zeure lagunza emon egijoju eskatzen dautzubenoi, ia euzkerea geuk ilten itxita daukogun izkuntz eder au gortitzen ba-dogu.

EUZKO IKASLE BAT

Lengo astean atzeratutakoa.

GORUNTZ - GAYA K

Eunak, bale-bizafak, zumitz
ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekale, 50

BILBAO

Frunitz.

Izpafingi au berbiztu zanetik ona eztogu idatzi; baña ezta izan beroni maitasunik ez deusgulakoa, baña bai itxitasun edo astirik ezagaitik. Safi egon naz oldoztuten badauzala efi onetan gazte mardulek, mutil eta neska. guk baño obeto argituko leukezanak jakingafi eta bafi on asko. Baña oniño ofei atsedenduten itxi biarko.

Izpar baltza.

Il onen 1'an il zan, eleizakoak artuta, Ibiñafaga'tar Pantzeske andra

Bilbao'ko Aurrezki-Rutxa Udaldarra

Gixarte aldeko bere lan andiagaitik
On-egiñen Gurutz Andiaz saritua

Udalak sortua eta Latefi-jaurpidearen babespean

Gixarte aldeko lan jafaltua

Eskola umien atsedentkia Emakumientzat alkar laguntza ta osatetxea Blizitokiak laguntza

Azkuntza ta ikaskefarako laguntza

Ikastaroko ordainketa Idaztitegiak Zine irakaskofa Umien auzetkia.

Umien azkuntza ta zaintzea. Esnea ta seaska-etxeak.

Etkez-etxeke oneikundea bere ardurapean dauko.

Landolak: Estación 3; Plaza de los Santos Juanes; Egaña 33
45 efitan ordaingoak. Barakaldo'n Baitura-etxia be bai,